

# *Ohe hotzak*

Jon Ariza De Miguel



*Goizean gutun bi topatu nituen postontzian, gertaera benetan arraroa, kointzidentzia handia baitzen aldi berean bi heltzea; gutunei arretaz begiratzean, ordea, bietako bat espero nituenetakoa ez zela ohartu nintzen.*


*Beste hiri batean bizi zen lagunak idazten zidan. Idatzi, eta ez hots egin, presarik ez zuelako (...) Aspaldi urrunduriko laguna. Bera nigandik, ni berarengandik, ezin ziur esan.*

(17.or.)

Hernaniko Udal Liburutegia  
2018 azaroa

# Jon Ariza De Miguel

1979an Portugaleten jaio, Bilbon hazi, han eta hemen hezi, eta Herbehereetan bizi da gaur egun.




## Bibliografia

---

### NOBELA

- *Ohe hotzak*. 2016, Elkar
- *Haizeari begira*. 2017, Elkar

## *Ohe hotzak*



Harremana izandako eta gero hoztutako lagun bati bigarren aukera bat ematea erabakitzen du nobelako protagonista izengabeak. Bizitza eta bertatik gustatzen zaigun guztia –ardoa, musika, liburuak, solasa...– atseginagoak baitira norbaitekin konpartituz gero; baina, igurtziak higadura sortzen duen bezala, konpainiak berekin dakar beti nekea, komunikazioak isiltasuna, besarkadak arrakala. Berea ez den hiri eta herrialde batean, eguneroko gertakari, paisaia eta jendeen aurrean begirada jakin-minezko eta gogoetalaria darabil narratzailea ere baden pertsonaiak, mundua aldi berean arrotza eta maitagarria dela sentitzen duenaren jokabide amultsu eta zirikatzailea.

# Kritikak<sup>1</sup>

## Narratzailearen hitzak

Javier Rojo

(...) Nobela honetan osagai bat nabarmentzen da, narratzailea. Lehenengo pertsonan hitz egiten duen narratzaile honek azaltzen du nola jaso duen lagun baten eskutitza, apurtuta zegoen harremana berreraikitzeke asmoz bidalia. Narratzaileak lagunari bigarren aukera bat ematea erabaki eta haren hirira doa berarekin egotera. Argumentuak hauxe dauka hasiera, eta nobelan zehar ikusiko dugu bi pertsonaia hauen arteko harremana nola garatzen den elkarrekin dauden egunetan. Baina harremana garatzen den bitartean, narratzailearen presentzia beste edozein osagaiaren gainetik nabarmentzen da.

Izan ere, nobela honetan gauza gutxi gertatzen dira, eta gertatzen diren gehienek ez dute berebiziko garrantzirik. Lagunek hitz egiten dute, ikuskizunen batera doaz, edan egiten dute, zehaztugabea den gertakari-multzo bat osatuz, hau da, gertakariak ez dute leku berezirik betetzen argumentu-hari batean. Benetan garrantzia duena narratzailearen hizketaldia baita, bere hitzak. Pertsonaia hau izengabea da, Europako Ekialdeko herrialde batean bizi da, oso zehatza ez dirudien lan bat eginez. Gertakarien markoa osatu beharko luketen elementu hauek ere guztiz zehaztugabeak dira, kanpoko erreferentzia zuzena egoteak narratzailearen ahotsa nolabait estali ahalko balu bezala.

Narratzailea etengabeko hizketaldi batean aritzen da, lagunarekin dituen harremanei buruz, harreman hauek zehazten baitute nor den. Kontua da harremanen izaera ere ez dela argitzen. Eta hizketaldi horretan narratzaileak bere buruaren irudia eskaintzerakoan, dandy kultu eta batzuetan pedante gisa aurkezten da, itxuran eta zerbait irudikatu nahian bere benetako nortasuna egongo balitz bezala. Amaieran irakurlea ezer kontatu ez zaiolako inpresioarekin geratzen da. Eta hau lortzea ez da meritu txikia, besteak beste liburuak 120 orrialdetik gora dituelako.

*El Diario Vasco, 2016-07-23*

---

<sup>1</sup> Kritikak osorik irakurtzeko [sarbidea 2018-10-15]: <https://zubitegia.armiarma.eus/?i=943>

# Ohe hotzetan bada zerbait

Edorta Jimenez

Zazpi ataletan egituratua, sarreratzat atal guztiek aipu bana dakarte eta nago aipuon bidez eleberria laburbildu ahal izango genukeela, horretara jarritz gero. (...) Bada, aspaldiko lagunak elkarrenetik aspaldi aldenduak, berriro elkartu dira, iraganean bien artean ukan zutena berreskuratzerik badutenetz jakitearren. Horretan saiatu ondoren antzeman duten erantzunak ixten du kontaera. (...)

Jon Ariza de Miguelek aspaldiko lagun bien berrelkarretaratzea kontatu digun bitartean egunerokotik hartuak diruditen testu laburrak, oroitzapenak, paradoxen kontaerak, hitz jokoak, postal-testuak eta beste eskaintzen dizkigu eta, horiexek dira nire iritziz liburu honen balio nagusia. Horien bitartez halako tonu bat erdiesten baitu, neuri zinez ez-ohikoa eta zintzoa begitandu zaidana. Artez-arte, trikimailurik gabe zuzentzen zaio idazlea balizko irakurleari. Halako naiftasun edo lañotasun kasik sinestezin batez. Kasik, diot, zeren eta azkenean liburuak bere alde paratu nau. Onartu egin dut Ariza de Miguelen proposamena, jolasean sartu naiz, jolasa ere bada eta liburu hau, eta aurreiritziak alde batera utzita dibertitu egin naiz. Horrek SPraiko tranbia lehenengoz irakurtzean izan nuenaren antzeko sententzia eragin dit, alegia nire buruari "Zer da hau?" behin eta berriro galdetu eta erantzunik etorri ez arren azkenean "Bada zerbait, bada zerbait" aitortu beharra. Jon Ariza de Miguelen ohe hotzetan bada zerbait. Zer den esatea zaila izanik, eman dezagun literatura dela.

*Deia, 2016-07-23*

## *Harreman aldakorrak* literatur hitzarmen bereizezinean

Iratxe Esparza

“Ohe hotzak” liburuan zalantzatia den pertsonaia nagusiari bizitzaren tarte bat lapurtzen zaio. Angel Errok idatzitako hitzaurreak gehi zazpi atalek osatzen dute eleberria, nahiz eta izenik gabeko protagonistaren kontakizuna, nire iritziz, bi zatitan banatuta egon, biak bakardadeak gidatuta. Lehenengo eta zazpigarren ataletan pertsonaia N hirian dago, aldizkari batentzako enkarguzko artikulua idatzi behar du berea ez den hiriak ematen dion anonimotasunaz gozatuz eta, aldi berean, pairatuz. Tarteko ataletan, aldiz, N hiriraino doa Tzortxok, bere “lagunak”, gutun baten bidez eskatuta.

Hori da liburuaren oinarria; baina, muina pertsonaiaren beraren eraikuntzan datza; izan ere, lehenengo pertsonaren erabilerak bakardadearen testigantza zuzena eman ez ezik, itxuraz absurdoak diren zeharkako hausnarketek ere bakarrizketaren antza hartzen duten gogoeta filosofikoekin eta pisuzko digresioekin elkartzen dira. Liburuaren bigarren orrialdeko oharrak pertsonaiaren identitatearen krisiaren berri ematen digu eta istorioa pertsona horren inguruan eraikitzen dela adierazten digu; izan ere, nortasun aldakorra duen hori eleberriaren erdigunea da (...)

*Gara*, 2016-07-30